

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AMURRIOKO UDALA

2018ko kontu orokorra jendaurrean jartzea

Miren Josune Irabien Marigortak, Araban dagoen Amurrioko Udaleko alkate naizen honek, Jakinarazten dut:

Antolamendurako Udal Batzordeak, 2020ko urtarrilaren 21ean egindako bilkuran, 2018ko kontu orokorra onesten duen espedientearen aldeko txostena egin zuen.

Espedientea jendaurrean jarriko da Udaleko Kontuhartzaitetzan, aipatutako txosten horrekin batera, hamabost egunez. Interesdunek epe hori izango dute haien aztertzeko, eta nahi dituzten erreklamazioak, oharrak edo iradokizunak aurkezteko.

Aurkezten diren erreklamazio, ohar edo iradokizunak Politika Ekonomikoen eta Funtzio Publikoaren Udal Batzordeak aztertuko ditu, eta ondoren beste txosten bat emango du.

Geroago, udalbatzari bidaliko zaio kontu orokorra, batzordearen txostenekin eta aurkeztutako erreklamazioekin batera.

Amurrio, 2020ko urtarrilaren 22a

Alkatea

MIREN JOSUNE IRABIEN MARIGORTA